



Ondorengo adierazpena Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadila proposatzen dut, horrela adostu baita Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren 2020/02/17ko bileran.

## **2020ko MARTXOAREN 8a - ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoa: gure jendarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea.

Beharrezkoa da eraldaketa erradikalak gauzatzea bizitzak politika publikoen erdigunean jartzeko, kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzeraino.

Beharrezkoa da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea.

Beharrezkoa da instituzioek interpelazio horiek gure gain hartzea, argazki soilak, berba hutsak eta zuriketa moretik haratago, beharrezko konpromiso politikoak eta beharrezko baliabideak erabili behar ditugu emakumeen eta gizonen artean dagoen sakoneko berdintasun ezei aurre egiteko; lan-errealitatearen, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariari erantzuteko helburuarekin.

Beharrezkoa da maila instituzional guztietatik lan egitea, udalerrietatik euskal gobernura arte, era koordinatuan eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztietan eskubide eta askatasunak zabaltzearren.

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak (Emakumeen Nazioarteko Eguna) balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztietako politika feministekin, azpimarra berezia jarriz egoera zaurgarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.

Horregatik guztiagatik, ONDARROAko Udalak, Emakumeen Udal berdintasun Kontseiluaren babesarekin, ERABAKI DU emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko honako hauek garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatuz:

- Udalak Ondarroako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako Udal plan berria landuko du, besteak beste, ezberdintasunak ezabatzeko eta



emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko udal politika guztietan, ekintza zein udal arlo eta zerbitzu guztietan.

- Etxelila udalerrian erreferentziazko gune feminista gisa indartzea beharrezko baliabideak esleituz, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa bultzatzeko, udaletako politika publikoetan jardun dezaten, laguntza eta elkartasun sareak sortzeko eta emakumeen ahalduntze prozesuak sustatzeko.
- Aldi berean, Udalak konpromisoa hartzen du Ondarroako Emakumeen Udal berdintasunerako Kontseilua indartzeko, talde feministak zein tokiko emakumeen elkarteak udal politika publikoak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko solaskide baliozkotzat hartzeko helburuarekin.

Aurreko guztia talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan egiteko konpromisoa hartzen dugu, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

Bukatzeko, herritarrak gonbidatzen ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak har ditzaten eta dei egiten diegu mugimendu feministak antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko.

Ondarroan, 2020ko otsailaren 21ean.

Izp.: Irina Alkorta Bedialauneta  
Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluburua